

AGURAINGO HERRI PROGRAMA

2019-2023



ehbildu

AURKIBIDEA

Kudeaketa eredua.....	3
Politika sozialak.....	4
Kultura.....	5
Kirola.....	6
Ingurumena.....	7
Politika fiskala eta aurrekontuak.....	8
Hirigintza.....	9
Jarduera ekonomikoak.....	10
Zerbitzu publikoak.....	11
Turismoa.....	12

KUDEAKETA EREDUA

EHBILDUREN LAN ESTILOAREN ARDATZ ETA ZEHAR LERROAK:

- ✓ Kudeaketa gardena eta herritarrekiko hurbiltasuna.
- ✓ Informazio iturriak eguneratu eta herritarrekin zuzeneko harremana izateko ordutegia.
- ✓ Udal jardueran euskararen normalizazioa bermatzea.
- ✓ Euskararen Erabilera planen eta barne planaren garapena / Euskara batzordea ahalduntzea
- ✓ Herritar guztien eskubide berdintasunean oinarritutako kudeaketa feminista.
- ✓ Berdintasun planaren garapena.
- ✓ Herritarrek ahalduntzea jarduera parte hartzaileko aukerak bermatuz.
- ✓ Parte hartze araudia onartu (batzorde informatibo publikoak, kontsultak,...)
- ✓ Elkarbizitza sustatzea, jatorri- adin- eta kultura-aniztasuna kohesio-elementu bihurtuz.
- ✓ Gazteekiko lankidetzat eta elkarlanaren bidez gazte ikuspegia udal politiketan barneratzea.
- ✓ Gure inguru naturalarekiko babes eta errespetua.
- ✓ Iradokizunak eta intzidentziak aurrera eramateko erraztasunak jarriko ditugu, hauen jarraipena ziurtatuz.

POLITIKA SOZIALAK

GINARRI IDEOLOGIKOAK

- ✓ Zerbitzu sozialen sistema publiko eta unibertsala sortu.
- ✓ Salbuespenik gabe, pertsona guztion eskubide sozialak bermatu.
- ✓ Pertsona bakoitzarentzat existentzia duin bat izateko baliabide nahikoak lortu.
- ✓ Zaintza lanak aintzatetsi eta duin bihurtu.
- ✓ Libreki hautatutako eta jardundako zaintzak bermatu.
- ✓ Pertsona guztion gizarteratze osoa bultzatu bazterketa eta desberdintasun sozialaren kontra borrokatuz.

PROGRAMAREN NEURRI ZEHATZAK

- ▶ Gazteleku eta Jolastoki zerbitzuak berrikusi, leku, adin eta ordutegiak eskaera eta benetako beharrei egokitzeko.
- ▶ Gazteentzat autokudeatutako gune bat ahalbidetu, zeinean hausnarketarako, ulermenerako, belaunaldi arteko elkartruckerako, kultura-jardueretarako, ... guneak sustatuko diren.
- ▶ Adinekoen parte-hartzea bultzatzea eremu guztietan, belaunaldi arteko jarduerak bultzatuz eremu komunetan.
- ▶ Gure udalerriko benetako beharrei buruzko diagnostiko bat egitea (pobrezia energetikoa, bakardadea ...) eta jarduera-ildoak martxan jartzea.
- ▶ Udal Berdintasun Zerbitzua sortzea.
- ▶ 2013an bizikidetza hobetzeko prozesuaren lan-ildoak berriro martxan jarri. Ongietorri-saioak suspertu eta adostutako gainerako ekintzak martxan jarri.
- ▶ Gizarte Zerbitzuetan langileak gehitu oporrak eta bajak bete eta zerbitzuaren kalitatea hobetu ahal izateko.
- ▶ Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua hobetu eta kudeaketa berreskuratuko dugu.

KULTURA

GINARRI IDEOLOGIKOAK

- ✓ Kultura aniztasunetik euskal kultura ardatz.
- ✓ Kultura gizarte eraldatzaile.
- ✓ Kultura herritik herriarentzat.
- ✓ Herri bizia kultura bizia.
- ✓ Jai eredu herrikoi, parekide, euskaldun, eta parte hartzailea
- ✓ Kultura azpiegituren arteko elkarlana eta saretzea.
- ✓ Gurea ezagutu eta gurea ezagutarazi.

PROGRAMAREN NEURRI ZEHATZAK

- ▶ Musika eskola sakonki aztertu eta aldatu. Erabiltzaileak eta langileak beraien jardueretan aurrera egin dezaten behar duten autonomia eta antolaketa bermatu.
- ▶ Kultur agenda bateratua bultzatu. kultur kontseiluan hasi genuen erronka berreskuratu agenda puntu/panel bakar batean jarritz. Baita kultur agenda elkarte guztiekin konpartitzeko modu bat guztiak jakiteko zer dagoen eta noiz, informazioa edukitzeko ta gauzak ez solapatzen saiatzeko.
- ▶ Kultur kontseiluarekin berriz lanean hasi; elkarteak dituzten beharretan laguntzeko: dirua, subentzioekin laguntza, agenda, komunikazioa, aktibitateentzako lekuak...
- ▶ Kultur elkarte eta jarduerekin zerikusia duten lokalen berregituraketa.
- ▶ Liburutegiarekin lotutako ekintzak sustatu eta ezagutarazi. Orduategia eta egutegia berrikusi eskaera eta benetako beharrei egokitzeko.
- ▶ Harresi Aretoaren eskaintza handitu: kalitatekoa, euskalduna.
- ▶ Teknologia berrien erabileran sakondu.

KIROLA

GINARRI IDEOLOGIKOAK

- ✓ Kirolaren presentziak indar handia du gure komunitatean eta herritarron parte-hartzea bultzatu behar dugu horrela jarraitu dezan. Honetarako instalakuntza egokiak egotea premiazkoa iruditzen zaigu bai gazte eta baita adinekoak ere kirolean parte hartzeko aukera izan dezaten. Kirol klubetan eta baita kirol jardueretan ere berdintasuna bultzatzen jarraitu behar dugu eta gure hizkuntzaren normalizazioa, erabilera bermatzen dela ziurtatu behar dugu.

PROGRAMAREN NEURRI ZEHATZAK

- ▶ Instalakuntzak berritzeko plana osatuko dugu, dauden arazoei irtenbidea emateaz gain.
- ▶ Klubekin dagoen harremana indartu eta bilera egutegi bat hitzartu.
- ▶ Irisgarritasuna bermatzeko neurri gehiago hartuko ditugu.
- ▶ Muskulazio eta spinning-eko makinaria berriztuko dugu, renting baten bidez.
- ▶ Sarbideen kontrol bat jartzea aztertuko dugu.
- ▶ Multikirola lantzeko martxan jarri ziren ekimenak bultzatzen eta hobetzen jarraituko dugu.
- ▶ Emakume talde berriak sustatuko ditugu.
- ▶ Instalakuntzen ordutegia zabaltzea aztertuko dugu.
- ▶ Klubei berdintasuna, hizkuntzaren normalizazioa, kulturartekotasuna eta parte hartzea bezalako baloreak transmititzea eskatuko diegu.
- ▶ Herri Kirolak sustatzeko ekimenak babestu eta lagunduko ditugu.
- ▶ Kirol ekintzetan izena ematerakoan, familien eta jubilatuen deskontuez gain, ikasle eta langabetuentzat eta baita gizarte-bazterketa arriskuan dauden familiei ere deskontua egiteko aukera aztertuko dugu.

INGURUMENA

GINARRI IDEOLOGIKOAK

- ✓ Gure inguru naturalak eskaintzen dituen baliabideak zuzenki zaindu eta administratu behar ditugu, aldaketak ekidin eta bere kontserbazio ona mantendu dezagun.
- ✓ Zaborren kudeaketan aurrera egin behar dugu, denon artean, Aguraingo hobekuntzak ingurunean, ekonomikoak eta sozialak lortzeko.
- ✓ Ahal den neurrian gizabanakoen, komertzioen, tabernen eta enpresen artean, gure baliabideen kontsumo arduratsua sustatuko dugu. Ahalegin kolektiboa egin behar dugu!

PROGRAMAREN NEURRI ZEHATZAK

- ▶ Udalaren ingurumen zerbitzua indartuko dugu lanpostu propio bat ezarriz
- ▶ Zaraeta, Zadorra, Egileor, el Alivio eta Sta. Bárbara errekek berreskuratu
- ▶ Ur zikin industrialen kontrolerako ordenantza eguneratu eta ikuskaritza plana onartu.
- ▶ Lur kutsatuen deskontaminazioa (Curtidos, Okariz, Arenas Etxabe, Thaiser,...) aztertu eta gauzatzeko urratsak eman.
- ▶ Galzar, Oriamendi eta Pedrokon bertako zuhaitzen landaketa gauzatu.
- ▶ Aguraingo hondakinen kudeaketari buruzko EHUK 2014an egindako ikuskaritza eguneratu eta neurri zuzentzaileak ezarri.
- ▶ Ur hornidura eta banaketa sarean dauden arazoak konpontzen joateko plangintza osatu eta konpontzen hasi (fibrozementua, ur galerak, ur “lapurretak”, etab.)
- ▶ Euri uren eta ur zikinen saneamendu sarearen banaketa gauzatzeko plana (Litutxipi, San Martín, Alde Zaharra,...)
- ▶ Piszina klimatizatua eta Jubilatuen egoitzan Biomasa galdarak ezartzea, gasoila erabili beharrean
- ▶ Argiteria publikoa LED teknologiarantz aldatzeko urratsak ematea
- ▶ 2014an egin zen kontsumo energetiko publikoaren ikuskaritza eguneratu eta bertan planteatzen diren neurriak ezartzen joatea
- ▶ Basoen ustiapenerako indarrean dauden planak gauzatzen joatea (Sotos y Vargas eta Udala)
- ▶ Inposatu nahi dizkiguten azpiegitura handien aurkako borroka (AHT, Korrosparrí,...)

POLITIKA FISKALA ETA AURREKONTUAK

GINARRI IDEOLOGIKOAK

- ✓ Lortu nahi dugun politika fiskalaren oinarriak unibertsaltasuna, ekitatea, progresibitatea, berdintasuna, nahikotasuna eta gardentasuna izango dira, gizarteak sortu eta administrazioak kudeatzen dituen baliabideak biltzeko garaian.
- ✓ Helburu horiek berdintasun-printzipioari jarraikiz, euskal administrazio guztien arteko harremanean ere eragin behar dute.
- ✓ Gure aurrekontu-politika, baliabideen kudeaketaren arrazionalizazioan eta zorroztasunean, genero-ikuspegian, gardentasunean, eraginkortasunean, parte-hartzean eta egoera ekonomiko ankerren aurkako erresilientzian oinarrituko da, lehentasuna betiere pertsonengan jarritz.
- ✓ Pertsonengan oinarrituta eraiki nahi ditugu aurrekontuak, pertsonak bidezko garapen ekonomiko eta iraunkorraren katalizatzaile izan daitezzen. Genero-ikuspegi baten arabera eraikitako aurrekontuak izango dira, eta genero-ikuspegia ohiko jardunbidea izango da erakunde guztietan.

PROGRAMAREN NEURRI ZEHATZAK

- ▶ Gaur egungo tasa eta prezio publikoen ordenantzen ikuskaritza bat egingo dugu zerbitzu publiko guztiak berrikusteko.
- ▶ Udal zerga eta tasen progresibitatean sakonduko dugu herritarren errentaren arabera hobarien aplikazioaren bitartez.
- ▶ Udalera iristen diren faktura guztiak gehiengoz hilabeteko epean ordainduko dira.
- ▶ Iruzur fiskalari aurre egiteko milioi bat euro baino gehiagoko fakturazioa duten enpresetan ikuskaritza fiskalak berreskuratuko ditugu.
- ▶ Udal Aurrekontuak herritarrekin eta eragileekin modu parte-hartzailean osatuko ditugu.
- ▶ 35.000€ gutxienez parte hartzearen bitartez herritarrek erabakitzeko zer egin.

HIRIGINTZA

GINARRI IDEOLOGIKOAK

- ✓ Hirigintza gure herria antolatzeko daukagun baliabidea da, eta kontuan hartzen ditu: herriarren etxebizitza beharrak, azpiegiturak, industria, lehen sektorea, elkarbizitzarako espazio publiko erreferentzialak, herri barruko mugikortasuna -auzoen arteko harremanak eta gizarte kohesioa bilatzeko-, oinezkoen lehentasuna, merkataritxiak...
- ✓ Hirigintza herriarren hurbiltzeko, udalaren jardura erabat gardena izan behar da hirigintza-garapenerako prozesuetan, horien kontrola gizartearen esku utziz eta espekulazioa saihestuz.
- ✓ Pertsona orok du etxebizitza duin eta egoki bat gozatzeko eskubidea. Hori posible egiteko, beharrezkoa da politika publikoaren esku hartzea helburu honen mesedetan aritzea, eta ez espekulazioa indartuz.
- ✓ Azken 60 urtetan bultzatu den jabego pribatuaren "kultura"-tik alokairuaren "kultura"-rako bideak gizartearen kontzientziazio-prozesu bat behar du. Prozesu horrek egungo errealitate ekonomikoa eta gure bizitza-proiektua garatzeko beharrei aurre egiteko jarrera izango ditu kontuan. Hori horrela, alokairuaren aldeko apustu garbia egiten duen eredu berri baten bila joan behar dugu. Erabil daitezkeen etxebizitza kopurua igotzeko, ondoko aukerak izango dute lehentasuna: etxe hutsen erabiltzea, alokairu publikoa sustatzea eta birgaitzea.

PROGRAMAREN NEURRI ZEHATZAK

- ▶ "Herri hezitzailea "proiektuari berriro ekingo diogu, gure herriaren eraikuntzan haurrek parte har dezaten bultzatzeko.
- ▶ Gazteentzako alokairu sozialerako Bustamante Jauregiaren proiektua berreskuratu.
- ▶ Udalerriko puntu ilunak diagnostikatu eta argiztapena hobetu.
- ▶ Hirigune historikoa, ahal dela, oinezkoentzako zona gisa berreskuratu eta oztopo arkitektonikoak kendu
- ▶ Udalerrirako mugikortasun plana eta diagnostikoa egin, hiri-altzariak berritzeaz gain
- ▶ Opakua eta San Jorgeko PERIak onartu.
- ▶ Apatetikoko Siloen zonaldea berreskuratu eta etorkizunerako ideien lehiaketa bat egin.
- ▶ Hiltegi zaharren eraikinari irteera bat eman.

JARDUERA EKONOMIKOAK

GINARRI IDEOLOGIKOAK

- ✓ Ezinbestekoa da politika industrialarekiko sentikorrak diren arloen arteko koordinazioa ematea: fiskalitatea, finantzaketa, gai diren pertsonen prestakuntza, azpiegitura lehiakorrak...Industria-politika eraginkorrak eskatzen du erakunde-ingurune desberdinen artean eredia partekatzea.
- ✓ Behar beharrezkoa da gure industria sektorea jasaten ari den beherakada iraultzea, eta horretarako Industria Politika eraginkor bat martxan jarri beharra dago, eragile politiko, sindikal eta sozialen arteko adostasunetatik abiatuz.
- ✓ Teknologikoki aurreratua eta produktiboki espezializazioan dibertsifikatua izango den ehun industrialia izan behar dugu helburu, sozialki bidezkoa eta fiskalki arduratsua izango dena, ezinbestean ingurugiroarekiko jasagarria eta nola ez, gure lurraldean orekatua.
- ✓ Bertako komertzioa, enpresak, ekintzaileak eta lehen sektorea herriaren motor ekonomikoa dira. Hori dela eta ekintza hori sustatzeko konprometua hartu nahi dugu.

PROGRAMAREN NEURRI ZEHATZAK

- ▶ Sektore ezberdinetako Aguraingo enpresa eta Udalaren arteko jardura ekonomikoen mahai bat sortuko dugu, herriaren interes orokorra helburu, elkarlana abiatzeko.
- ▶ Komertzioari dagokionez, 2012an egindako “Plan Especial de Revitalización del Comercio” (PERCO) eguneratuko dugu
- ▶ Alde zaharreko merkataritza suspertzeko plan bat garatu, saltokiekin lankidetzan eta lankidetzan publiko-pribatua sustatu.
- ▶ Saltokiekin elkarlanean, Kultur Bira zirkuitua suspertu eta aldatuko dugu, tokiko kontsumoa bultzatzeko.
- ▶ Eskualdeko tokiko produktuak saltzeko bide berriak ireki.
- ▶ Alde zaharra merkataritzarako gune atsegina bihurtu dendak eta produktuak ikusarazteko, espazioak edertuz eta ohiko salmentaz bestelako aukerak sortuz.
- ▶ Nekazal bideen mantenu eta garbiketa lanak berreskuratuko ditugu.

ZERBITZU PUBLIKOAK

GINARRI IDEOLOGIKOAK

- ✓ Herri baten duintasuna herritarren duintasunean oinarritzen da eta, zentzu horretan, kalitatezko zerbitzu publikoak eraikitzea eta eskaintzea politika publikoen lehenengo eginkizuna eta ardura da, oinarritzkoena.
- ✓ Datozen lau urteetan, helburu nagusia gure herria murrizketarik gabeko herria izatea lortzea da, egungo egoerari buelta emanez, galdutako hainbat eskubide indarrean jarritz eta, baita ere, aurrerapausoak emanez, babes mailan Europako herri aurreratuekin buruz buru jartzeko. Eta hori dena, langileekin lankidetzan, azken urteetan jaso duten zigorra eta mespretxua gaindituz.

PROGRAMAREN NEURRI ZEHATZAK

- Aguraingo zerbitzu publiko ezberdinetan eman diren murrizketek (hondakin bilketa; eraikin publikoen garbiketa; garbigunea; kale garbiketa,...) zerbitzuen kalitatea ere murriztu dutenez, egoerari buelta emango diogu.
- Gaur egun azpikontratatura ditugun zerbitzuak publikifikatzen hasteko urratsak ere emango ditugu ahal dugun eanean.

TURISMOA

GINARRI IDEOLOGIKOAK

- ✓ Gure turismo eskaintza burutzeko garaian, Agurain ezagutzera eman behar dugu, nondik gatozen, nortzuk garen eta nora joan nahi dugun.
- ✓ Barne turismoa bultzatzea garrantzitsua da, izan ere, oraindik orain gure ezagutarazteko eskaintzak egiteko aukera paregabea dugulako, baita barne turismo honek gure ekonomiarentzat oso baliagarria izan daitekeela ere.

PROGRAMAREN NEURRI ZEHATZAK

- ▶ Autokarabanen eremuko instalazioetan mantentze eta egokitzapena hobetu.
- ▶ Udalerriko eta eskualdeko arkitektura, natura eta kultur baliabideak balioesteko ekimen berriak martxan jarri.
- ▶ Aguraingo Santiago bidearen aterpetxea txikia geratzen ari da, eta moldaketa txiki batzuk egitea aztertuko dugu 6 plaza gehiago izateko.